05. Paisaiaren eraikuntza

1. Sarrera. Paisaiaren diseinua arteetan zabalenetakoa da, zibilizazio bakoitzak haren ikuspegi ezberdina izan duelarik. Tradizioz paisaiaren diseinua lorategi eta parkeekin erlazionatua izan da, baina urbanizazio prozesuarekin batera zentzu zabalago batean ere uler daiteke.
    - Paisaia termino lausoa bilakatu da: askotan lurraldearen sinonimo gisa erabiltzen da; besteetan, naturarena. Paisaia mota ezberdinak aipatzen dira: paisai naturala, paisai artifiziala, hiri-paisaia, gizarte-paisaia…
    - Europako Kontseiluak paisaiaren definizioa eman zuen 2000an: Paisaia biztanlegoak hautematen duen lurralde-zatia da, eta haren izaera giza- eta natura-faktoreen arteko elkarreraginaren emaitza da.
    - Hortaz, paisaia egoteko subjektu bat egon behar duenez, esan daiteke paisaia errealitatearen eraikuntza mental bat dela. Beste era batean esanda, paisaia ez da lurraldea bera, baizik eta lurraldeaz dugun pertzepzioa. Paisaia subjektiboa da (Jean Nouvelentzat, kasu, ederragoa da larre bat erdian tentsio altuko poste bat badago).
2. Paisaiaren eraldaketa produktiboak (nekazaritzarekin erlazionatutako partzelazioak):
    - Abere-larreak. Toloño mendia.
    - Harrespilak (ehorzketak egiteko eta funtzio erlijiotsua ere izan zezaketen). Hilarrita, Behenafarroa.
    - Hamabi gorabiletako saroiak, XVI. mendekoak. Hernani, Alonsotegi, Leitzaran. EITBko *Postdata*.
    - La Geriako mahastiak, Lanzarote.
    - Akuikultura Mediterraneoan (arrain-haztegiak).
    - Ihinztaketa zirkularreko larreak. Le Mans, Casas Blancas, Montana, Mexiko Berria, Texas.
    - Lursail goldatuak ur-arroetan, Monegroak, Zaragoza; Alfajarin inguruak.
    - Lursailen zatitze "demokratikoa", Mississipi ibaiaren ertzean, Louisiana, AEB.
    - Almeriako hegoaldeko negutegiak.
    - Baratze zapaldatuak edo mailakatuak: Erret bailarako "andeneak", Peru, XIV. mende inguruan (Pisac eta Machu Pichu); Mallorcako Tramontana mendilerroa; La Gomerako Agulo; Benidormeko aldiriak; Baztaneko Ziga.
3. Paisaiaren eraldaketa artistikoak.
    - Luis Peña Gantxegiren lurzoruaren geometrizazioa: Donostiako Trinidade plaza, 1961, eta Tenis plaza, 1975; Gasteizko Foruen plaza, 1979; Gudariaren omenezko monumentua, 1977, Oiartzungo hilerria.
    - Nazcako marrazketa monumentalak, Peru, K.a. 300 – K.o. 600. urtean eginak. Batzuk 275 metroko luzera dute. Kolibria, eskuak, armiarma, giza-irudia ("astronauta").
    - Eskalak eta tamainen erlatibotasuna. 60-70. hamarkadako Land Art mugimendua:
        a. Richard Long: "A line made by walking", 1967; "England", 1968; "River Po Line", 2001.
        b. Michael Heizer: "Double negative", 1969, Nevada.
        c. Walter de Maria: "Lightning field", 1977, Mexiko Berria.
        d. Robert Smithson: "Spiral Jetty", 1970, Utah.
        e. Christo: "Running fence", 1972-1976, California.
    - Lorategi japoniarra. Kyoto: Daisen-in eta Ryogen-in (XV. mendekoa) lorategi lehorrak.
    - Charles eta Ray Eames: *Powers of Ten* film laburra (9 min), 1977.